



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava

www.alava.net

NOLA ARI DEN HELTZEN ARABAKO TXAKOLINAREN MAHATSA

Jarraipen hauen helburua da informazioa eskaini ahal izatea mahastizaintza sektoreari prozesu horren bilakaerari buruz, erabakigarria izan baitaiteke etorkizuneko ardoen azken kalitatean. Horrela, upeltegiei eta mahastizainei lagundu nahi zaie finkatzen zein den momenturik onena mahatsa biltzeko eta zein den mahatsaren kalitatea.

Emaitzak interpretatzeko orduan, garrantzitsua da kontuan izatea hainbat faktore eta alderdi:

- ✓ Laginak Hondarribi Zuri barietatea ekoizten ari diren lurzatietan hartu dira. Lagin modura hartutako mahatsondoek eskualdearen eta hango guneen adierazgarri izan behar dute.
- ✓ Azterlanaren helburua da lortutako informazioa eta datuak erreferente izan daitezela prozesuaren bilakaeran. Hala ere, nola eskualdeko mahatsondo gehienak sakabanatuta dauden eta orografia desberdina duten, ezin da lortutako datuen estrapolazio zuzenik egin, lurzatiak elkarren artean hurbil dauden arren. Garrantzi handia dauka jarraipen zehatzekin segitzeak mahatsondo eta lurzati bakoitzean.
- ✓ Kontuan hartu behar da mahatsaren heltzea baldintzatu ahal duten faktoreak asko eta oso desberdinak izan daitezkeela, hala nola, lurzatiaren kokapena, mahatsondoaren adina, lurraren ezaugarriak, mahats karga, estres hidrikoa, landarediaren osasuna, bertan egiten diren kultura praktikak.

ARABAKO TXAKOLINAREN HELTZEA: 2015eko irailaren 22a



| AURKINTZA | ALTITUD EA (m) | Espero den alkohol GRADUA | AZIDOTASU N TARTARIKO A GUZTIRA g/litro | pH | AZIDO MALIKOA g/l |
|--|----------------------|------------------------------------|---|-------------|-------------------------|
| ARTOMAÑA (Arrastaria harana– Amurrio) | 310 | 10º15 | 9,36 | 2,93 | 3,14 |
| AGUIRREALDAI (Okondo) | 205 | 10º85 | 10,08 | 2,99 | 3,90 |
| LEZAMA (Amurrio) | 320 | 9º85 | 12,38 | 2,91 | 5,46 |
| BELDIO (Laudio) | 340 | 9º00 | 11,67 | 2,98 | 5,19 |
| HONDARRIBI ZURI BATEZ BESTEKO | | 10º00 | 10,87 | 2,95 | 4,42 |

Iruzkinak:

- Mahatsaren heltzea 8-10 egun aurreratuta dator batez besteko urte batekin alderatuta. Udako tenperatura altuek aurreratu egin zuten kolore aldatzea eta osteko heltzea zenbait mahastitan.
- Muztioaren aberastasun glukometrikoa, Handarribi Zuri barietatean, **9º0 eta 10º85** baloreen artean dago laginak hartu diren finketan. Mahastien egoera begetatiboa ona da, baina mildiu eta botrytis gaitzaren sintomaren bat agertu da.
- Laudioko lagina (Beldio) irailaren 8ko buletineko partzelarena ez bezalako orientazioa duen partzela batean hartu da, eta kontuan hartu beharrekoa da datuak interpretatzerakoan,
- Mahats mordoaren osasuna oso ona da.